

ZUMARRAGA-URRETXU / Bernardo Atxagak irakurle taldearen solasaldian parte hartuko du

Zumarraga-Urretxuko euskarazko irakurle taldeak, martxoaren 3an egingo du bere hurrengo bilkura, hilabetero biltzeko ohiturari jarraituz, eta oraingoan, Bernardo Atxaga idazlearen 'Zazpi etxe Frantzian' liburuaren gainean solastatuko dira, Zelai Arizti kultur etxean egingo den bilkurara gerturatzen diren taldekide eta gainerako literaturzaleak. Martxoko saioa, ordea, berezia izango da, liburuaren egileak ere, Bernardo Atxagak, bilkuran parte hartuko baitu, Zumarragara horretarako propio etorrita. Gorka Azkarate irakurle taldeko gidariaren hitzetan "ohorea izango da guretzat, ziur aski euskarazko idazle unibertsalena dena gure artean izatea".

Iragan urteko azaroan hasi zuen bere ibilbidea euskarazko irakurle taldeak, "Udal euskaltegiaren eta Zumarragako liburutegiaren ekimenez, eta bi udaletako euskara sailen babesarekin. Hamabost lagun inguru elkartzen gara hilabetero, hilabete horretan irakurritako liburuaren gainean jarduteko. Horrez gain, hurrengo hilabeteko liburua ere adosten da. Kirmen Uriberen, Uxue Alberdiren, Ramon Saizarbitoriaren eta Pello Lizarralderen liburu bana irakurri eta komentatu ostean, Atxagaren azken nobelari heldu zaio txanda, martxoaren 3an aztertuko dutena, hain zuzen", dio Azkaratek.

Abenduko saioan, Uxue Alberdi idazlea bilkuran izan zen, eta hau izango da liburuaren idazlea etor-tzen den bigarren aldia. Azkarateren hitzetan, "tarteka idazlea gure artean izaten saiatzen gara, jarduna aberatsagoa bilakatze aldera; oraingoan Atxagarekin kontaktua egin dugu eta gure gonbidapena onartu du oso modu adeitsuan".

Martxoko saioan ohi baino jende gehiago inguratuko dela espero du Azkaratek. "Idazlea gure artean egongo dela jakinda, jende gehiago animatzea normala da, are gehiago idazlea Atxaga izango dela kontuan hartuz". Izan ere, Atxaga euskarazko idazle unibertsalena da, bere lanak hainbat hizkuntzataraz itzuli dira eta hamaika sari garrantzitsu lortu ditu. "'Obabakoak', 'Behi euskaldun baten memoriak', 'Bi anai', 'Soinujolearen semea', 'Gizona bere bakardadean' edo 'Sara izeneko gizona', lan aski ezagunak dira literaturzaleen artean, eta oso estimatuak".

Solasaldira inguratzeko asmorik duenari, aurretik liburua irakurtzeko gomendioa luzatzen dio Azkaratek, "solasaldia liburu horren gainekoa izango baita, nagusiki". Saioa 19:30ean hasiko da eta ohi bezala Zelai Arizti kultur etxean izango da.